

**IRAKASKUNTZA-GIDA**

2022/23

**Ikastegia**

160 - Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea. Arabako Atala

**Zikl.**

Zehaztugabea

**Plana**

GTRABA10 - Gizarte Langintzako Gradua

**Ikastaroa**

2. maila

**IRAKASGAIA**

25952 - Gizarte Baliabideen Behatokia

**ECTS kredituak:** 6**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA****AZALPEN LABURRA**

Irakasgai hau, E moduluar Praktika eta Gradu Amaierako Lana dagokio, non titulazioko kreditu kopuru handiena metatzen den. Bertan Gelako Praktika (24 ECTS), Kanpo Praktika (32 ECTS) eta Gradu Amaierako Lana (10 ECTS) daude.

Modulu hau, kompetentzia profesionalaren garapenarekin estuki lotua dago. Horrela, ikasleek jardute profesionalerako ezagutza zein oinarriko gaitasunak bereganatzen dituzte; bertan Gizarte Langintzaren esku-hartze zein ikerketa laburbiltzen dira. Modulua helburua jardute profesionalera hurbilpena da eta titulazio osoan zehar eskaintzen da, azkeneko ikasturteko practicum eta Gradu Amaierako Lana izanik. Zerikusia duten irakasgaiak: Gizarte errealitateen behatokia, Jardute profesionalerako sarrera, Kanpo praktikak: practicum, Hezkuntza gainbegiratzea eta etika profesionala eta Gradu Amaierako Lana.

Gizarte-errealitatearen ondorioz sortutako behar, gabezia eta problematikei erantzuteko dauden gizarte-baliabideen ezagutzarako lehenengo gerturaztea eskaintzea da irakasgai honen helburua. Honetarako gizarte-babes sistema nagusienak aztertu egiten dira.

**GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK****IRAKASGAIAREN GAITASUN ZEHATZAK:**

- (GZ1) Gizarte-babes sistema nagusien egitura orokorra, gizarte-baliabideak ezagutu eta horniketa moduak ulertzea (MO6CMO4).
- (GZ2) Informazio iturri ezberdinak erabiliz gizarte-baliabideen inguruan txostena egiten ikastea (MO6CMO7).
- (GZ3) Gizarte-babes sistemak oinarri bezala hartuta, hobetuko duten praktika onen diseinua garatzea (MO6CMO3).

**EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK****ANECAK ONARTURIKO EDUKIEN DESKRIBAPENA**

Irizpide ezberdinen arabera baliabide sozialen sailkapena:

- Erakunde erak: administrazio publikoa, hirugarren sektorea, enpresa.
- Kudeaketa ereduak: zuzena, zeharkakoa.
- Babes sozialen sistemak: gizarte zerbitzuak, osasuna, hezkuntza, sarreraren bermea, e.a.

Babes sistema era nagusiak eta dagokien baliabide sozialak: gizarte zerbitzuak, osasuna, hezkuntza, sarreraren bermea, etxebizitza, enplegu eta formakuntza, justizia.

Ahozko zein idatzizko komunikazio trebeziak, abilezia inter-pertsonalak batik bat.

Aurreko horretan oinarriturik, irakasgaia hiru atal nagusien arabera egituratzen da:

1. Babes sistema nagusiak eta dagokien babes sozialak.
2. Babes sistemen arabera gizarte baliabideen lurralde analisi eta eremuen finkatzea.
3. Gizarte baliabideen lurralde beharren diagnostika eta praktika onen lantzea.

**METODOLOGIA**

Irakasgaiaren izaera praktikoa dela eta, metodologia partehartzaile eta aktiboak gailentzen dira. Horregatik irakaskuntza gelako praktikak oinarri dutela egituratuko da. Zehazki, honako irakaskuntza era hauek nabaritutako dira:

- Azalpen teorikoak.
- Formazio jarduerak.
- Banakako lanak.
- Talde lanak.

## IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	15		45						
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	22,5		67,5						

**Legenda:** M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.  
 GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak  
 TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

## EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

## KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Banakako lanak % 30
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 70

## OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

### ETENGABEKO EBALUAZIOA

Etengabeko ebaluazioan lanak, berauen aurkezpenak eta saiotan parte hartze aktiboa hartuko dira aintzakotzat. Lanen entregatze soilak ez du irakasgaia gainditzea ziurtatzen, dagokien gaitasunak ere lortu beharko dira. Hauek dira lanen ebaluazio portzentaiak:

- Babes sistemen lurralde mapa eta honen inguruko txosten idatzia (talde lana): azken notaren %25a.
- Lurralde eta babes sistema jakin baten testu inguraturiko praktika onaren diseinua (talde lana): azken notaren %45a.
- Praktika Onen Ferian oinarritutako txostena (banakako lana): Azken notaren %15a.
- Froga teoriko-praktikoa (banakakoa): Azken notaren %15a.

Azken froga honetan ikasleak, egindako lanak, fitxak, apunteak zein bestelako iruzkinak kontsultatu ahal izango ditu. Tresna edo gailu telefoniko, elektronikoa edo informatikoen erabilera ez da onartuko (kontrakoa zehazten ez bada)

### AMAIERAKO EBALUAZIOA

Amaierako ebaluazioa jarraitzeko garatuko diren lanak/frogak (guztiak banakakoak) eta ebaluazio ehunekoak hauek dira:

- Babes sistemen lurralde mapa eta honen inguruko txosten idatzia: Azken notaren %25a. .
- Lurralde eta babes sistema jakin baten testuinguraturiko praktika onaren diseinua: Azken notaren %40a.
- Nahitaez erabili beharreko materialetan oinarrituriko azken froga: Azken notaren %35a. Edukiak eta materialak e-gelan argitaratuta daude.

Azken proba hau burutzeko, ikasleek debekatuta izango dute liburuak, oharrak edo apunteak erabiltzea, bai eta tresna edo gailu telefoniko, elektronikoa, informatikoa edo bestelakoak erabiltzea ere.

### EBALUAZIOAREN INGURUKO INFORMAZIO OSAGARRIA

- Bi ebaluazio sistemetan proba/lan guztiak gaindituak egon beharko dira irakasgaia gainditzeko. Atalaren bat gaindituko ez balitz, gainditutako atalen nota gordeko da ezohiko deialdirako.
- Akats gramatikalek eta ortografikoez suspentso ekar dezakete.
- Ebaluazio proba/lan batean kopiatu (edota plagiatu) egin dela egiaztatuz gero, tartean sartuta dauden ikasle guztiei "suspentso" kalifikazioa jarriko zaie. Jokabide makur eta iruzurrezkoztat joko dira UPV-EHUko Etika Akademikoari buruzko protokoloan adierazitakoak (protokoloaren 2. puntuan zehaztutakoak, hain zuzen ere)

### ESKOLETARA ETORRERARI BURUZ

Ebaluazioa jarraian, lauhilabete osoan zehar klasera etorri (%75an) eta eskoletako dinamikan parte hartu behar da. Edozein kasutan, kronograman zehaztutako oinarritzko saioetara etorrera derrigorrezkoa da.

### ETENGABEKO EBALUAZIOARI UKO EGITEKO PROZEDURA

Azken ebaluazio bidez ebaluatua izateko, ikasleak etengabeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren irakasleari eta horretarako hamar asteko epea izango du lauhilekoa hasi ondoren.

### DEIALDIARI UKO EGITEKO PROZEDURA

ETENGABEKO EBALUAZIOAREN kasuan, "azken probaren pisua bada irakasgaiko kalifikazioaren %40 baino handiagoa, nahikoa izango da proba horretara ez aurkeztea azken kalifikazioa "aurkezteke" izan dadin. Aldiz, azken probaren pisua bada irakasgaiko kalifikazioaren % 40 edo hori baino txikiagoa, deialdiari uko egin nahi dioten ikasleek kasuan kasuko irakasgaiaren irakaskuntza aldia bukatu baino, gutxienez, hilabete lehenago egin beharko dute eskaria. Eskari hori idatziz aurkeztu beharko zaio irakasgaiaren ardura duen irakasleari".

AMAIERAKO EBALUAZIOAREN kasuan azterketa egun ofizialean egin beharreko probara ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea.

#### **EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA**

Ezohiko deialdiak ohiko deialdian proposatutako ebaluazio sistemak indarrean egongo dira.

Ohiko deialdian gaitututako lan/proben notak ezohiko deialdirako mantenduko dira. Notak ez dira inolaz ere gordeko hurrengo ikasturterako.

#### **NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK**

Beharrezko materialak eta testu osagarriak e-gelan eskuragarri daude.

#### **BIBLIOGRAFÍA**

##### **Oinarrizko bibliografia**

Irakasgairako funtsezkoak diren testuak e-gelan eskuragarri daude.

##### **Gehiago sakontzeko bibliografia**

##### **Aldizkariak**

- Cuadernos de Trabajo Social. (Gizarte langintzan espezializatua)
- Revista Documentación Social.
- Revista Española del Tercer Sector
- Portularia (Gizarte langintzan Espezializatutako aldizkaria)
- Servicios Sociales y Políticas Sociales.
- Zerbitzuan

##### **Interneteko helbide interesgarriak**

Ararteko  
[http:// www.ararteko.net](http://www.ararteko.net)

SIIS-lkerketa eta dokumentazio Zentroa  
<http://www.siiis.net>

#### **OHARRAK**

Bi ebaluazio sistemetarako lanak entregatzeko epeak egelan eskegita daude.